

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN FORU-DEKRETUAREN PROIEKTUA, BIZKAIBIZI FORU-ZERBITZU PUBLIKOA ARAUTZEKO PREZIO PUBLIKOA EZARTZEKOA

ZIOEN AZALPENA

I

Martxoaren 4ko 2/2011 Legeak, Ekonomia Jasangarriari buruzkoak, mugikortasun jasangarriari eskaintzen dio III. tituluko III. kapitulua, eta administrazioei, beren eskumenen esparruan, agindua ezartzen die mugikortasun jasangarriko politikak sustatzeko, besteak beste garraio-zerbitzu berriak ezartzeko printzipioa errespetatuko dutenak. Ezarpen hori inbertsio eta mantentze-kostuekin bat datorren eskariak baldintzatuta egongo da, eta kontuan hartuko ditu, betiere, kalitate, prezio eta segurtasun egokia izango duten ordezko garraiobideak, baita haien ingurumen-ebaluazioaren emaitzak ere.

Arau horren 100. artikulua mugikortasun jasangarriko politikaren helburuak ezartzen ditu, honako hauek lortzeko izan beharko direnak:

1. Hiriko ingurumena eta herritarren osasuna eta segurtasuna hobetzen eta ekonomia eragin-korragoa lortzen laguntzea, natura-baliabideen erabilera arrazionalago bati esker.
2. Hiri- eta ekonomia-garapeneko politikak eta mugikortasunekoak integratzea, ohiko joan-etorriak gutxienekora murrizteko, eta oinarrizko zerbitzuetara irisgarritasun eraginkorra, efizientea eta segurua izatea errazteko ahalik eta ingurumen-inpaktu txikienarekin.
3. Energia-kontsumoaren murrizketa eta energia-efizientziaren hobekuntza sustatzea, horretarako kontuan hartuta eskaria kudeatzeko politikak.
4. Gizarte-, ekonomia-, ingurumen- eta energia-kostu txikieneko garraiobideak sustatzea, pertsonentzat zein salgaientzat, baita garraio publiko eta kolektiboaren eta motorrik gabeko beste garraiobide batzuen erabilera ere.
5. Garraiobideen modalitatea eta intermodalitatea sustatzea, kontuan hartuta ibilgailu pribatuaren ordezkari beste garraiobide batzuk garatzea ahalbidetzen duten garraio-sare eta -moduak.

Osasunarekin eta ingurumenerako kaltegarriak diren isuriak murriztearekin lotutako mugikortasun jasangarriko helburuak lortzeko, lehentasunezkoa da gutxiago kutsatzen duten eta osasunerako onuragarriagoak diren mugikortasun-aukeren kuota modala handitzea; hau da, oinez eta bizikletaz ibiltzea sustatzea. Aukera horiei jarraitu behar diete, lehentasun-hurrenkeran, garraio publikoak eta intermodalitateak, trakzio mekanikoko ibilgailu pribatuaren erabileraren aurrean; izan ere, frogatu da ibilgailua oso kutsatzailea dela —isurtzen dituen berotegi-efektuko gasak direla eta—, ez-efizientea, osasun publikoan eragina duela eta berekin dakartzala haren erabilerari lotutako istripu-tasa bat egotea eta hiriko espazio publikoaren okupazioa.

Bizikleta publikoaren zeregina da bizikleta bidezko mugikortasuna sustatzea, orokorrean, herritarren eskura kalitatezko bizikleta-zerbitzu unibertsal bat jarrita; hartara, helburu honetan laguntzeko: biztanleriak, oro har, eguneroko mugikortasunean automobilaren ordezkari bizikleta erabiltzeko ohitura

har dezala, dela zerbitzu publikoak erabiliz, dela bizikleta pribatua erabiliz.

## II

Ekonomia Jasangarriari buruzko martxoaren 2/2011 Legearen 100. artikuluan jasotako helburu zehatzak lortzea erraztuko duen mugikortasun jasangarria sustatzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak eta itsasadarren bi aldeetako bederatzi (9) udalek (Barakaldo, Berango, Bilbo, Erandio, Getxo, Leioa, Portugalete, Santurtzi eta Sestao) lankidetzeta-hitzarmen bat sinatu zuten 2022ko otsailean, bizikletak alokatzeko zerbitzu publiko bat ezartzeko, BizkaiBizi izenekoa, eta konpromiso irmoa hartu zuten bizikleta garraio-sistema arruntean sar dadin sustatzeko, beste garraiobideen ordezko gisa; mugikortasun jasangarria sustatzeko konpromiso horretatik abiatuta, herritarrei bizikleten mailegu-zerbitzu publiko bat eskaintzeko apustua egin dute, herritarrek ingurumenaren aldetik jasangarria den garraiobide bat izan dezaten hiriarteko joan-etorrietarako. Proiektuak helburu du ahalik eta pertsona gehienek erabil dezatela bizikleta hitzarmena sinatu duten udalerrien artean egiten diren eguneroko joan-etorrietan, eta Bilboko metropoli-ingurunean dauden nahitaezko mugikortasuneko premiei erantzuteko pentsatuta dago; hala ere, etorkizunean handitu egin ahal izango da BizkaiBizi proiektuaren proiektzio-eremu geografikoa.

Zerbitzua behar bezala erregistratuta dauden eta BizkaiBizi zerbitzuarekiko betebeharrak egunean dituzten erabiltzaileek bakarrik erabili ahal izango dute. Zerbitzua eskuratu eta behar bezala erabiltzeko, beharrezkoa da zenbait xedapen ezartzea, erabiltzaileak zehatz-mehatz eta argi jakin dezan zein diren bizikleten mailegurako BizkaiBizi zerbitzua eskuratzeko eta erabiltzeko arauak, bai eta Bizkaibizi zerbitzua finantzatzeko erabiliko diren prezio publikoak ere.

## III

Zerbitzua finantzatzeko prezio publikoaren erregulazioari dagokion erregelamenduaren bidez heldu nahi zaio. Araudi horrek Foru Dekretu forma hartuko du, Bizkaiko Foru Administrazioaren tasa, prezio publiko eta bestelako zerga baliabideei buruzko ekainaren 26ko 4/1990 Foru Arauaren 28. artikuluan azaldutakoaren arabera.

BizkaiBizi zerbitzuaren erabilera arautzeko mekanismo gisa ordain ekonomikoa kobratzearen helburua da publikoari ematen zaion BizkaiBizi zerbitzua unibertsala, jasangarria eta etengabekoa izatea, eta haren erabilera arrazionala izatea.

BizkaiBizi zerbitzuaren kostu osoa 2022ko otsailean sinatutako lankidetzeta-hitzarmenaren hamar alderdiek hartzen dute beren gain; hitzarmen horretan, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Barakaldo, Berango, Bilbo, Erandio, Getxo, Leioa, Portugalete, Santurtzi eta Sestaoko udalek konpromisoa hartzen dute urtero beren aurrekontu orokorretan gordetzeko ekimenak dakartzan gastuak, hitzarmenaren I. eranskinean adierazitakoaren arabekoak, ordaintzeko bakoitzari dagozkion diru-partidak.

Hala, zerbitzuaren finantzaketa bermatuta dago hitzarmena sinatu duten alderdiek hartutako konpromisoen bidez, zerbitzuaren kostua estaltzeko aurrekontu-aurreikuspen gisa.

Era berean, erabiltzaileek prezio publikoak ordaintzetik sortuko diren baliabideek Bizkaibizi zerbitzua ezartzeak eragindako gastuei aurre egiteko balioko dute, hitzarmenaren III.4 klausulan jasotako moduan.

Illo horretatik, prezio publikoak ordaintzea ezinbesteko baldintza da zerbitzua eskuratzeko, baita Bizkaibizi sistemaren erabiltzaile izaten jarraitzeko ere. Ordain ekonomiko hori ez ordaintzeak zerbitzua eskuratzeko eta erabiltzeko erregelamenduaren 26. artikuluan aurreikusitako ondorioak izango ditu; horrez gain, premiamenduzko administrazio-prozeduraren bidez eskatu ahal izango da prezio publikoak ez ordaintzearen ondoriozko zorrak ordaintzeko, Bizkaiko Foru Administrazioaren Tasa, Prezio Publiko eta Bestelako Tributu Baliabideei buruzko ekainaren 26ko 4/1990 Foru Arauan eta ekonomiaren arloko Bizkaiko Foru Aldundiaren gainerako arauetan aurreikusitako moduan.

#### IV

Ordain ekonomikoa kobratzeko egitura, Bizkaibizi zerbitzuaren erabilera arautzeko mekanismo gisa, artikulua hauetan arautzen da: 3. artikuluan, zeinak sorrarazten baitu ordaintzeko betebeharra; 4. artikuluan, zeinak arautzen baititu ordaintzeko betebeharra duten pertsonak; 6. artikuluan, zeinak ezartzen baitu prezio publikoaren egitura, bi kategoriaren arabera (abonuaren arabera prezioa eta erabileraren arabera prezioa), eta, azkenik, 7. artikuluan, zeinak arautzen baitu kobrantzaren kudeaketa eta prezioa ordaintzeko modua.

«Bizkaiko bizikleta publikoko zerbitzua ezarri, mantendu eta kudeatzea» xede duen kontratuaren esleipenduna da erabiltzaileei prezio publikoak kobratzeko kudeaketa-lanak egitearen arduraduna.

Erabiltzaileen ordainketen ondoriozko diru-bilketa kontratistak zuzenean ordainduko dio Bizkaiko Foru Aldundiari, kontratuaren jarraipen eta kudeaketa arruntaz arduratzen den unitateak emandako jarraibideen arabera. Horretarako, kontratuaren esleipendunak adierazitako zenbatekoari dagokion ordainketa-gutuna emango du, kontratuaren jarraipen eta kudeaketa arruntaz arduratzen den unitatean behar bezala justifikatuta. Ordainketen zerrenda horrekin batera, administrazio ekonomikoko zerbitzuak emandako ziurtagiri bat aurkeztuko da, zerbitzuaren erabiltzaileek egindako ordainketa/kobrantza guztiak jasotzen dituen, foru dekretu honetan araututako prezio publikoei buruzkoak soilik (abonuen prezioa eta erabileren prezioa).

Era berean, kontratuaren jarraipen eta kudeaketa arruntaz arduratzen den unitateak adierazten duen moduan eta aldizkakotasunez, kontratistak ordaindu gabe geratu diren prezio publikoen ziurtagiria emango du, Bizkaibizi zerbitzuaren kudeaketaz arduratzen den Foru Departamentuak kobrantza kudea dezan, Bizkaiko Foru Administrazioaren Tasei, Prezio Publikoei eta beste tributu-baliabide batzuei buruzko ekainaren 26ko Foru Arauaren arabera.

#### V

Xedapena onartzeko organoak duen eskumenari dagokionez, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17.1.4. artikulua arabera, foru-testu bereko 17.2.a) artikuluaekin lotuta, Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluari dagokio arau-xedapen hau onartzea. Hala ere,

xedapen gehigarri baten bidez, gaiaren arabera eskumena duen foru-diputatua gaituko da, hala badagokio, aldizka eta modu arrazoituan, prezio publikoaren araudiaren eranskinean jasotako prezio publikoetan eguneratzeak sar ditzan.

Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuak, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duenak, 12. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta Garraioetako eta Mugikortasun Iraunkorreko Foru Sailaren titularra naizen aldetik, BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN FORU DEKRETU PROIEKTUAREN honako proposamen hau onartzea komeni da, BIZKAIBIZI ZERBITZU PUBLIKOA ARAUTZEN DUEN PREZIO PUBLIKOA EZARTZEKO. Hona hemen proposamenaren edukia:

## I. KAPITULUA

### XEDAPEN OROKORRAK

#### 1. ARTIKULUA. XEDEA

Helburua da Bizkaiko bizikleta publikoko foru-zerbitzua (aurrerantzean, BizkaiBizi zerbitzua) emateko prezio publikoa arautzea.

Bizikleten mailegurako BizkaiBizi zerbitzua pedalei eragiteko laguntza duten bizikleten banakako mailegurako publikoari ematen zaion zerbitzu bat da, borondatezkoa, helburu duena mugikortasun jasangarria sustatzea eta bultzatzea garraio bide osasungarri, jasangarri eta ez-kutsatzaile hau Barakaldo, Berango, Bilbo, Erandio, Getxo, Leioa, Portugalete, Santurtzi eta Sestao udalerrietan joan-etorriak egiteko erabiliz, zerbitzua eskuratzeko eta erabiltzeko erregelamenduan jasotzen diren erabilera-baldintzen arabera.

#### 2. ARTIKULUA. ORDAINTZEKO BETEBEHARRA SORTZEA

Abonuen araberrako prezioei dagokienez, BizkaiBizi sistema erabiltzeagatiko prezio publikoa ordaintzeko betebeharra zerbitzua ematen hasten denean sortzen da, hau da, zerbitzuan alta ematean.

Erabileraren araberrako prezioei dagokienez, bizikleta aktibatzen eta desblokeatzen denean sortzen dira.

#### 3. ARTIKULUA. ORDAINTZERA BEHARTUTA DAUDEN PERTSONAK

Ordaintzeko betebeharra izango dute 16 urtetik gorakoak izanik BizkaiBizi zerbitzuaz baliatu nahi dutenek.

Zerbitzuan alta eman dezaketen adingabeen kasuan (Sarbideari eta Erabilerari buruzko Erregelamenduaren 3. artikulua arabera, 16 eta 17 urte bitartekoak), zorra prezio publiko gisa ordaindu gabe geratzen bada, horren zuzeneko erantzuleztat joko da Bizkaibiziko zerbitzuan alta emateko baimena eman eta adingabearen guraso-ahala edo legezko tutoretza duen pertsona, erabiltzaile adingabearekiko erantzukizuna bere gain hartzeko deklarazioa sinatu ondoren.

#### 4. ARTIKULUA. PREZIOA EZARTZEA

Abonuen prezio publikoaren zenbatekoa eta erabilerengatiko prezio publiko finkatzeko oinarritzko irizpideak honako hauek dira: alde batetik, zerbitzuaren kostua eta eskari potentzialaren estimazioa; eta, bestetik, Foru Aldundiaren interes publikoa, bizikletaz garraio bide osasungarri, iraunkor eta ez-kutsatzaile gisa mugituz mugikortasun jasangarria bultzatu eta bultzatzean gauzatzen dena, herritarren mugikortasunaren kultura-eredu desberdin baterantz aurrera egin ahal izateko.

Foru dekretu proiektu honen I. eranskinean prezio publiko gisa proposatutako zenbatekoak zehazten dira.

#### 5. ARTIKULUA. PREZIOAREN EGITURA

Kobratuko den ordain ekonomikoak, BizkaiBizi zerbitzua hitzarmenaren arabera finantzatzeko mekanismo gisa kobratuko denak, egitura hau izango du:

- Abonuaren arabera prezio bat ezarriko da; abonuen iraupena aldi baterako izan daiteke, gehienez ere, urte natural baterako.
- BizkaiBizi zerbitzuaren erabileraren arabera prezio bat ezarriko da; erabilera-denbora 30 minutuko tarteetan banatuko da lehenengo bi orduetan, eta 60 minutuko tarteetan hortik aurrera, erregelamenduan araututako gehienezko erabilera-denbora amaitu arte.
- Lehen azaldutako bi puntuetan deskontuak egin ahal izango zaizkie, foru dekretu honen eranskinaren arabera, bizikleta ohiko garraiobide gisa erabiltzen duten erabiltzaileei, bai eta urtean zehar mugikortasun iraunkorra sustatzeko egindako kanpainengatik ere. Horren guztiaren berri emango da [www.bizkaibizi.eus](http://www.bizkaibizi.eus) web orriaren bidez.

## **6. ARTIKULUA. PREZIOA ORDAINTZEA**

BizkaiBizi zerbitzua erabiltzeko prezio publikoa zerbitzuaren erabiltzaileak adierazitako zordunketa- edo kreditu-txartelaren bidez ordainduko da.

## **7. ARTIKULUA. PREZIOA ITZULTZEA**

Prezio publikoa ordaintzeko betebeharra duen pertsonari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik BizkaiBizi zerbitzua ematen edo garatzen ez bada, dagokion zenbatekoa itzuliko da.

## **8. ARTIKULUA. ZORRAK**

Premiamenduzko administrazio-prozeduraren bidez eskatu ahal izango da prezio publiko gisa egindako zorrak ordaintzeko.

## **9. ARTIKULUA. ADMINISTRAZIOA ETA KOBARRANTZA**

1. Foru dekretu honetan araututako prezio publikoak ordaintzeko betebeharra sortzen den unetik eska daitezke, 3. artikuluan aurreikusi bezala.
2. Prezio publikoak kobratzeko administrazioa eta likidazioa Bizkaibizi zerbitzua kudeatzen duen Foru Sailak egingo du, hargatik eragotzi gabe Bizkaiko bizikleta publikoaren zerbitzua ezartzeko, mantentzeko eta kudeatzeko kontratuaren esleipenduna erabiltzaileei prezio publikoak kobratzeko kudeaketaren arduraduna izatea.

Horretarako, erabiltzaileen ordainketen ondoriozko diru-bilketa zuzenean ordainduko dio esleipendunak Bizkaiko Foru Aldundiari, kontratuaren jarraipen eta kudeaketa arruntaz arduratzen den unitateak maiztasunari eta moduari buruz ematen dituen jarraibideen arabera. Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiak adierazitako zenbatekoari dagokion ordainketa-gutuna emango du, kontratuaren jarraipen eta kudeaketa arruntaz arduratzen den unitatean behar bezala justifikatuta. Ordainketen zerrenda horrekin batera, administrazio ekonomikoko zerbitzuak emandako ziurtagiri bat ere aurkeztu beharko da, zerbitzuaren erabiltzaileek egindako ordainketa/kobrantza guztiak jasotzen dituen, foru dekretu honetan araututako prezio publikoari buruzkoak soilik (abonuen prezioa eta erabileren prezioa).

3. Era berean, kontratuaren jarraipen eta kudeaketa arruntaz arduratzen den unitateak adierazten duen moduan eta aldizkakotasunez, zerbitzua kudeatzen duen enpresak ordaindu gabe geratu diren prezio publikoen ziurtagiri bat emango du, Bizkaibizi zerbitzuaren kudeaketaz arduratzen den Foru Sailak eskubide publiko horiek kobratzeko administrazioa eta likidazioa egin dezan, Bizkaiko Foru Administrazioaren Tasei, Prezio Publikoei eta beste zerga baliabide batzuei buruzko ekainaren 26ko 4/1990 Foru Arauarekin bat etorritz, bai eta Zergen Foru Arau Orokorrean eta Zerga Bilketako Erregelamendu Orokorra onartzen duen abuztuaren 21eko 125/2019 Foru Dekretuan tributuetarako ezarritako administrazio prozedurekin eta prerrogatibekin bat etorritz ere.

## XEDAPEN GEHIGARRIAK

### LEHENENGOA- APLIKATU BEHARREKO ARAUBIDE JURIDIKOA

Foru-dekretu honetan aurreikusten ez den guztirako Bizkaiko Foru Administrazioaren Tasa, Prezio Publiko eta Bestelako Tributu Baliabideei buruzko ekainaren 26ko 4/1990 Foru Araua eta Aurrekontuei buruzko 2006ko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bategina onartzen duen abenduaren 3ko 5/2013 Foru Dekretu Arauemailea aplikatuko dira, baita Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean jasotako oinarritzko araudia eta aplikatu beharreko gainerako administrazio-araudia ere.

### BIGARRENA- PREZIO PUBLIKOAK EGUNERATZEA

Prezio publikoak Bizkaibizi zerbitzuaren kudeaketaz arduratzen den foru-saileko diputatuaren foru-aginduaren bidez eguneratu ahal izango dira, baina eguneraketa horrek ez du inola ere ekarriko prezioen funtsezko aldaketarik.

### HIRUGARRENA- PREZIO PUBLIKOETAKO DESKONTUAK, MUGIKORTASUN IRAUNKORRA SUSTATZEKO

5.3 artikuluan aurreikusitako eta Eranskinean zehaztutako deskontuak Bizkaibizi zerbitzuaren kudeaketaz arduratzen den Foru Departamentuko titularraren foru-agindu bidez aplikatu ahal izango dira.

## XEDAPEN IRAGANKOR

### BAKARRA- 2023ko ABENDUAREN 31ra ARTEKO TARIFAK

Bizkaibizi zerbitzuaren erabilera sustatzeko, mugikortasun jasangarria bultzatzeko tresna gisa, hura martxan jartzen denetik 2023. urtea amaitu arte aplikatu beharreko tarifak eranskinean aurreikusitako taulako A) atalean jasotakoak izango dira.

## AZKEN XEDAPEN

### BAKARRA- ARAUA INDARREAN JARTZEA ETA INDARRALDIA

Bizkaibizi zerbitzuaren prezio publikoak arautzen dituen foru-dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta aldatu edo indargabetu arte izango ditu ondorioak.

## ERANSKINA

## A) 2023/12/31 ARTEKO TARIFAK

<b>URTEKO ORDAINKETA</b>	12,50 €/ urteko	
<b>ERABILERA BAKOITZEKO TARIFA</b>	0-30 min	0,00 €
	30-60 min	+0,175 €
	60-90 min	+0,25 €
	90-120 min	+0,25 €
	+ 120 min	+6,00 €/orduko (edo zatikia)

## B) 2024/01/01etik AURRERAKO TARIFAK

<b>URTEKO ORDAINKETA</b>	25,00 €/ urteko	
<b>ERABILERA BAKOITZEKO TARIFA</b>	0-30 min	0,15 €
	30-60 min	+0,35 €
	60-90 min	+0,50 €
	90-120 min	+0,50 €
	+ 120 min	+6,00 €/orduko (edo zatikia)

## C) 5. ARTIKULUAN JASOTAKO DESKONTUAK

Hilabete batez zerbitzuaren hogeita hamar erabilera edo gehiago egiten dituzten erabiltzaileen kasuan, % 50eko deskontua egingo zaie erabilera-tarifari. Deskontu hori betekizun hori bete eta hurrengo hilabetean aplikatuko da. Era berean, mugikortasun jasagarria sustatzeko kanpaina edo ekitaldi zehatzengatik erabilera-tarifaren gaineko % 100erainoko deskontua jasoko dute.



PROYECTO DE DECRETO FORAL DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA PARA LA FIJACIÓN DEL PRECIO PÚBLICO REGULADOR DEL SERVICIO PÚBLICO DE “BIZKAIBIZI”

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

I

La Ley 2/2011, de 4 de marzo, de Economía Sostenible reserva el Capítulo III del Título III a la movilidad sostenible, estableciendo un mandato a las Administraciones, en el ámbito de sus competencias, para la promoción de políticas de movilidad sostenible, que respeten principios como el del establecimiento de nuevos servicios de transporte, supeditado a la existencia de un volumen de demanda acorde con los costes de inversión y mantenimiento, teniendo en cuenta, en todo caso, la existencia de modos alternativos de la debida calidad, precio, seguridad, así como los resultados de su evaluación ambiental.

El artículo 100 de la misma norma establece los objetivos de la política de movilidad sostenible, que deberá perseguir:

1. Contribuir a la mejora del medio ambiente urbano y la salud y seguridad de los ciudadanos y a la eficiencia de la economía gracias a un uso más racional de los recursos naturales.
2. Integrar las políticas de desarrollo urbano, económico, y de movilidad de modo que se minimicen los desplazamientos habituales y facilitar la accesibilidad eficaz, eficiente y segura a los servicios básicos con el mínimo impacto ambiental.
3. Promover la disminución del consumo de energía y la mejora de la eficiencia energética, para lo que se tendrán en cuenta políticas de gestión de la demanda.
4. Fomentar los medios de transporte de menor coste social, económico, ambiental y energético, tanto para personas como para mercancías, así como el uso de los trasportes público y colectivo y otros modos no motorizados.
5. Fomentar la modalidad e intermodalidad de los diferentes medios de transporte, considerando el conjunto de redes y modos de transporte que faciliten el desarrollo de modos alternativos al vehículo privado.

Para lograr los objetivos de movilidad sostenible asociados a la salud y la reducción de emisiones nocivas para el medio ambiente, es prioritario aumentar la cuota modal de los medios de movilidad menos contaminantes y más beneficiosos para la salud; caminar y la bicicleta. Estos deben ser seguidos en orden de prioridad por el transporte público y la intermodalidad, frente al uso del vehículo privado de tracción mecánica, que se ha demostrado altamente contaminante por sus emisiones de efecto invernadero, ineficiente, generador de impactos en la salud pública, la siniestralidad asociada a su uso y la ocupación del espacio público urbano.

El papel de la bicicleta pública es el de incentivar la movilidad ciclista en general, poniendo al alcance de la ciudadanía un servicio de bicicletas de calidad y universal, coadyuvando a que la población en general se habitúe a cambiar el coche por la bicicleta en la movilidad cotidiana, ya sea mediante el uso de servicios públicos como con el uso la bicicleta privada.

## II

A estos efectos de promoción de la movilidad sostenible que facilite la consecución de los objetivos concretos previstos en el artículo 100 de la Ley 2/2011, de 4 de marzo, de Economía Sostenible, la Diputación Foral de Bizkaia y nueve (9) ayuntamientos del margen de la ría (Barakaldo, Berango, Bilbao, Erandio, Getxo, Leioa, Portugalete, Santurtzi y Sestao) suscribieron en febrero de 2022 un Convenio de Colaboración para la implantación de un servicio público de alquiler de bicicletas, denominado proyecto BizkaiBizi, el cual es un servicio de naturaleza no coactiva, teniendo el firme compromiso de fomentar la introducción de la bicicleta en el sistema de transporte ordinario como alternativa a los otros medios de transporte, y desde ese compromiso de promoción de la movilidad sostenible apuestan por ofrecer a la ciudadanía un servicio de préstamo al público de bicicletas, como medio de transporte público medioambientalmente sostenible para desplazamientos en el ámbito interurbano. La vocación funcional del proyecto es que sea utilizado por el mayor número posible de personas en sus desplazamientos cotidianos que tengan lugar entre los municipios suscribientes del convenio, estando concebido para dar respuesta a la necesidad de la movilidad obligada en el entorno metropolitano de Bilbao, y todo ello sin perjuicio de que, en un futuro, pueda ser ampliable el ámbito geográfico de proyección del proyecto BizkaiBizi.

El servicio sólo podrá ser utilizado por personas usuarias debidamente registradas y que estén al corriente de sus obligaciones con el servicio BizkaiBizi. Para el acceso y correcta utilización del servicio, es necesario establecer una serie de disposiciones que permitan al usuario conocer con exactitud y claridad las normas de acceso y uso del servicio de préstamo de bicicletas BizkaiBizi, así como los precios públicos que se destinarán a la financiación del servicio Bizkaibizi.

## III

La regulación del precio público para la financiación del servicio se plantea abordarla a través del correspondiente reglamento, el cual adquirirá la forma de Decreto Foral en los términos expuestos en el artículo 28 de la Norma Foral 4/1990, de 26 de junio, de Tasas, Precios Públicos y otros recursos tributarios de la Administración Foral de Bizkaia.

El cobro de la contraprestación económica, como mecanismo para regular la utilización del servicio Bizkaibizi, persigue que la prestación al público del servicio Bizkaibizi sea en clave de universalidad, accesibilidad y continuidad del servicio, y que el mismo uso del sistema se adecue a la nota de racionalidad.

El coste íntegro del servicio Bizkaibizi es asumido por las diez partes firmantes del Convenio de Colaboración suscrito en febrero de 2022, según se recoge en su epígrafe III.2, en la que tanto la Diputación Foral de Bizkaia como los Ayuntamientos de Barakaldo, Berango, Bilbao, Erandio, Getxo, Leioa, Portugalete, Santurtzi y Sestao se comprometen a reservar anualmente en sus presupuestos generales las partidas económicas que en cada caso les correspondan para sufragar los gastos que genere la iniciativa según lo reflejado el Anexo I del Convenio.

Así, la financiación del servicio está asegurada a través de los compromisos adquiridos por las partes firmantes del Convenio, como previsión presupuestaria para la cobertura del coste del servicio.

Igualmente, los recursos generados por el abono de los precios públicos por parte de las personas usuarias servirán para hacer frente a los gastos derivados de la implantación del servicio Bizkaibizi y que se recogen en la cláusula III.4 del convenio.

En este sentido, el abono de los precios públicos es condición tanto para el acceso al servicio como para la continuidad en la condición de persona usuaria del sistema de Bizkaibizi. El impago de esta contraprestación económica acarreará las consecuencias previstas en el artículo 26 del Reglamento de acceso y uso del servicio, sin perjuicio de que las deudas por los precios públicos puedan ser exigidas mediante el procedimiento administrativo de apremio, en los términos previstos en la Norma Foral 4/1990, de 26 de junio, de Tasas, Precios Públicos y otros recursos tributarios de la Administración Foral de Bizkaia, y demás normativa de carácter económico de la Diputación Foral de Bizkaia.

#### IV

La estructura para el cobro de la contraprestación económica, como mecanismo para regular la utilización del servicio Bizkaibizi viene regulada desde por el artículo 3, que determina el nacimiento de la obligación del pago; en el artículo 4, que regula las personas obligadas al pago; el artículo 6, que establece la estructura del precio público en base a dos categorías: precio por abono y precio por uso. Y, finalmente, en el artículo 7 el cual regula la gestión del cobro y la modalidad de pago del precio.

La adjudicataria del contrato relativo a la “Implantación, mantenimiento y gestión del servicio de bicicleta pública de Bizkaia” es la responsable de la gestión del cobro de los precios públicos a las personas usuarias.

La recaudación procedente de los pagos de las personas usuarias se abonará por la contratista directamente a la Diputación Foral de Bizkaia, de conformidad a las instrucciones que, relativas a la periodicidad y al modo, emita la unidad encargada del seguimiento y gestión ordinaria del contrato. Para ello, la adjudicataria del contrato emitirá Carta de Pago correspondiente al importe indicado y debidamente justificado ante la Unidad encargada del seguimiento y gestión ordinaria del contrato, adjuntándose a esta relación de pagos un certificado emitido por el servicio de administración económica donde se reflejen todos los pagos/cobros realizados por las personas usuarias del servicio y relativos exclusivamente a los precios públicos reguladas en el presente decreto foral (precio por abonos y precio por usos).

Igualmente, bajo el modo y periodicidad que indique la citada unidad encargada del seguimiento y gestión ordinaria del contrato, se emitirá por la contratista un certificado de los precios públicos que han resultado impagados, para que el Departamento Foral encargado de la gestión del servicio de Bizkaibizi proceda a la gestión del cobro de conformidad a la Norma Foral, de 26 de junio, de Tasas, Precios Públicos y otros recursos tributarios de la Administración Foral de Bizkaia.

#### V

En relación con la competencia del órgano para la aprobación definitiva de la disposición, a tenor de los artículos 17.1.4º de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y

Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, en conexión éste con el artículo 17.2.º a) del mismo texto normativo foral, la aprobación de la presente disposición normativa corresponde al Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia. No obstante, mediante una disposición adicional se habilitará al Diputado/a Foral competente por razón de la materia para que, si así procede, periódicamente y de manera motivada, se introduzcan actualizaciones a los precios públicos recogidos en el anexo a la normativa del precio público.

En virtud de lo dispuesto por el artículo 12 del Decreto Foral 87/2021 de 15 de junio, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia, y como titular del Departamento Foral de Transportes y Movilidad Sostenible, tengo a bien aprobar la siguiente propuesta de PROYECTO DE DECRETO FORAL DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA PARA LA FIJACIÓN DEL PRECIO PÚBLICO REGULADOR DEL SERVICIO PÚBLICO DE “BIZKAIBIZI”, siendo su contenido el siguiente.

## CAPITULO I

### DISPOSICIONES GENERALES

#### ARTÍCULO 1. OBJETO

Tiene por objeto regular el precio público por la prestación del servicio de bicicleta pública de Bizkaia (en adelante, servicio BizkaiBizi).

El Servicio de Préstamo de Bicicletas "Bizkaibizi", se concibe como un servicio prestado al público de préstamo individual de bicicletas de pedaleo asistido, de carácter no coactivo, y que tiene como objetivo favorecer y potenciar la movilidad sostenible a través del desplazamiento en este medio de transporte saludable, sostenible y no contaminante por los municipios de Barakaldo, Berango, Bilbao, Erandio, Getxo, Leioa, Portugalete, Santurtzi y Sestao, de acuerdo con las condiciones de utilización que se describen en el correspondiente reglamento para el acceso y uso.

#### ARTÍCULO 2. NACIMIENTO DE LA OBLIGACIÓN DE PAGO

Respecto a los precios por abonos, la obligación de satisfacer el precio público por el uso del sistema Bizkaibizi nace desde el momento en que se inicie la prestación del servicio, mediante el alta en el servicio.

Respecto a los precios por uso, éstos se devengarán mediante la activación y desbloqueo de la bicicleta.

#### ARTÍCULO 3. PERSONAS OBLIGADAS AL PAGO

Estarán obligadas al pago todas las personas que, a partir de los 16 años, deseen beneficiarse del servicio Bizkaibizi.

En el caso de las personas menores de edad que pueden darse de alta en el servicio (según el artículo 3 del Reglamento de acceso y uso las comprendidas entre 16 y 17 años), en caso de resultar impagada la deuda en concepto de precio público, se considerarán directamente responsables de la misma a la persona que, habiéndoles autorizado para darse de alta en el servicio de Bizkaibizi y habiendo suscrito la declaración de asunción de responsabilidad respecto de la persona usuaria menor de edad, ejerza la patria potestad o tutela legal de la persona menor.

#### ARTÍCULO 4. FIJACIÓN DEL PRECIO

La fijación de la cuantía del precio público de los abonos así como del precio público por usos tiene como criterios básicos, por un lado, el coste del servicio y la estimación de la demanda potencial; y, por otro, el interés público foral concretado en favorecer y potenciar la movilidad sostenible a través del desplazamiento en bicicleta como medio de transporte saludable, sostenible y no contaminante, de manera que se posibilite avanzar hacia un diferente modelo cultural de movilidad ciudadana.

En el Anexo al presente Proyecto de Decreto Foral se detallan las cuantías propuestas como precios públicos.

#### ARTÍCULO 5. ESTRUCTURA DEL PRECIO

El cobro de la contraprestación económica, como mecanismo para financiar el servicio de Bizkaibizi en los términos del convenio tendrá la siguiente estructura:

- Se establecerá un precio de abono que podrá ser de duración temporal, hasta el máximo de un año natural.
- Se establecerá un precio por el uso del servicio Bizkaibizi, modulado en franjas de 30 minutos durante las dos primeras horas, y en franjas de 60 minutos hasta el uso máximo permitido regulado en el reglamento.
- Se podrán realizar descuentos en los dos puntos expuestos anteriormente, y según el anexo al presente Decreto Foral, a usuarios que hagan un uso de la bicicleta como medio de transporte habitual, así como por motivo de diferentes campañas realizadas a lo largo del año, con el fin de incentivar la movilidad sostenible. De todo ello se informará de forma detallada a través de la página web [www.bizkaibizi.eus](http://www.bizkaibizi.eus).

## **ARTÍCULO 6. PAGO DEL PRECIO**

El pago del precio público por el uso del servicio Bizkaibizi se realizará a través de una tarjeta de débito o de crédito facilitada por la persona usuaria del servicio.

## **ARTÍCULO 7. DEVOLUCIONES DEL PRECIO**

Cuando por causas no imputables a la persona obligada al pago del precio público, el servicio Bizkaibizi no se preste o desarrolle, procederá la devolución del importe correspondiente.

## **ARTÍCULO 8. DEUDAS**

Las deudas contraídas en concepto de precio público podrán exigirse por el procedimiento administrativo de apremio.

## **ARTÍCULO 9. ADMINISTRACION Y COBRO**

1. Los precios públicos regulados en el presente decreto foral serán exigibles desde el momento en el que se produce el devengo de la obligación de pago, tal y como se ha previsto en el artículo 3.
2. La competencia para la administración y liquidación para el cobro de los precios públicos se realizará por el Departamento Foral que gestiona el servicio de Bizkaibizi, sin perjuicio de que la adjudicataria que gestiona el contrato relativo a la “Implantación, mantenimiento y gestión del servicio de bicicleta pública de Bizkaia” sea la responsable de la gestión del cobro de los precios públicos a las personas usuarias.

Para ello, la recaudación procedente de los pagos de las personas usuarias se abonará directamente por el gestor del servicio a la Diputación Foral de Bizkaia, de conformidad a las instrucciones que, relativas a la periodicidad y al modo, emita la unidad encargada del seguimiento y gestión ordinaria del contrato. Para ello, la Diputación Foral de Bizkaia emitirá Carta de Pago correspondiente al importe indicado y debidamente justificado ante la Unidad encargada del seguimiento y gestión ordinaria del contrato, adjuntándose a esta relación de pagos un certificado emitido por el servicio de administración económica donde se reflejen todos los pagos/cobros realizados por las personas usuarias del servicio y relativos exclusivamente a los precios públicos reguladas en el presente decreto foral (precio por abonos y precio por usos).

3. Igualmente, bajo el modo y periodicidad que indique la citada unidad encargada del seguimiento y gestión ordinaria del contrato, se emitirá por la empresa gestora del servicio un certificado de los precios públicos que hayan resultado impagados, para que el Departamento Foral encargado de la gestión del servicio de Bizkaibizi proceda a la administración y liquidación para el cobro de tales derechos de naturaleza pública, todo ello de conformidad con la Norma Foral 4/1990, de 26 de junio, de Tasas, Precios Públicos y otros recursos tributarios de la Administración Foral de Bizkaia, así como de conformidad con los procedimientos administrativos y con las prerrogativas establecidas para los tributos en la Norma Foral General Tributaria y en Decreto Foral 125/2019, de 21 de agosto, por el que se aprueba el Reglamento General de Recaudación”.

## DISPOSICIONES ADICIONALES

### **PRIMERA. - RÉGIMEN JURÍDICO APLICABLE**

En todo lo no previsto será de aplicación la Norma Foral 4/1990, de 26 de junio, de Tasas, Precios Públicos y otros recursos tributarios de la Administración Foral de Bizkaia, el Decreto Foral Normativo 5/2013, de 3 de diciembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Norma Foral 5/2006, de 29 de diciembre, General Presupuestaria, la normativa básica recogida en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, en la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, así como al resto de la normativa administrativa que resulte de aplicación.

### **SEGUNDA. ACTUALIZACION DE LOS PRECIOS PÚBLICOS**

La actualización de los precios públicos, que no supondrá en ningún caso alteración sustancial de los mismos, podrá realizarse mediante orden foral de la persona titular del Departamento Foral encargado de la gestión del servicio de Bizkaibizi.

### **TERCERA. DESCUENTOS EN LOS PRECIOS PÚBLICOS PARA INCENTIVAR LA MOVILIDAD SOSTENIBLE**

La aplicación efectiva de los diferentes descuentos previstos en el artículo 5.3, y concretados en el Anexo, podrá realizarse mediante orden foral de la persona titular del Departamento Foral encargado de la gestión del servicio de Bizkaibizi.

## DISPOSICION TRANSITORIA

### **ÚNICA.- TARIFAS HASTA EL 31 DE DICIEMBRE DE 2023**

Con el fin de incentivar el uso del servicio Bizkaibizi, como instrumento de impulso de la movilidad sostenible, desde su puesta en marcha hasta el final del año 2023 las tarifas a aplicar serán las contempladas en el apartado A) de la tabla prevista en el Anexo.

## DISPOSICION FINAL

### **ÚNICA.- ENTRADA EN VIGOR Y VIGENCIA DE LA NORMA**

El presente Decreto Foral que regula los precios públicos del servicio de Bizkaibizi entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia, y surtirá efectos hasta que se proceda a su efectiva modificación o derogación.

ANEXO

A) TARIFAS HASTA EL 31/12/2023

<b>ABONO ANUAL</b>	12,50 €/ año	
<b>TARIFA POR USO</b>	0-30 min	0,00 €
	30-60 min	+0,175 €
	60-90 min	+0,25 €
	90-120 min	+0,25 €
	+ 120 min	+6,00 €/h (o fracción)

B) TARIFAS A PARTIR DE 01/01/2024

<b>ABONO ANUAL</b>	25,00 €/ año	
<b>TARIFA POR USO</b>	0-30 min	0,15 €
	30-60 min	+0,35 €
	60-90 min	+0,50 €
	90-120 min	+0,50 €
	+ 120 min	+6,00 €/h (o fracción)

C) DESCUENTOS CONTEMPLADOS EN EL ARTÍCULO 5:

En el caso de personas usuarias que durante un mes realicen treinta o más usos del servicio, se verán beneficiadas con un descuento del 50% sobre la tarifa de uso. Dicho descuento se aplicará en el mes siguiente al cumplimiento de este requisito. Igualmente, se verán beneficiadas con un descuento que puede llegar hasta el 100% sobre la tarifa de uso por razón de campañas o eventos concretos para incentivar la movilidad sostenible.